SUTAN
DAGOEN
ETXEA
ATZEAN
UZTEA?

¿DEJAR
ATRÁS
LA CASA
EN LLAMAS?

# SUTAN DAGOEN ETXEA ATZEAN UZTEA?

*

TFARRAH M. YESLEM
JARA CALVO

SAREGINAK ENTRETEJIDAS

Zehar-Errefuxiatuekin-en Arte eszeniko eta literatur proiektua.

zehar errefuxiatuekin

Argitalpen hau, kontrakoa adierazten den lekuetan izan ezik, *Parekideen Ekoizpen* Lizentziapean editatu eta ekoitzi da. Bere edukia erreproduzitu, partekatu edo haren ondoriozko lanak sor daitezke, baldintza hauetan::

Aitortza - Lizentzia berdinarekin partekatu - Ez kapitalista

https://endefensadelsl.org/ppl_es.pdf

Egileak: Tfarrah M. Yesslem eta Jara Calvo.
Azalaren ilustrazioa: Sra. Milton.
Edizioa eta ekoizpena: Zehar-Errefuxiatuekin.
Inprimatua Bilbon, Espainian, Europar Batasunean.
2025eko ekaina.

GIPUZKOA Foru Aldundia - Diputación Foral
Bizkaia foru aldundia diputación foral
LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL AGENTZIA AGENCIA VASCA DE COOPERACIÓN Y SOLIDARIDAD
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## NONDIK SORTU DA POEMATEGI HAU?

Zure eskuetan duzun obra Zehar-Errefuxiatuekinen *Entretejidas/Sareginak* proiektu/prozesuko Poesia Laborategiaren emaitza da. Poesia eszenikoaren bidez emakume errefuxiatu eta migratzaileen derrigorrezko desplazamenduen esperientziak ikusgai jartzeko espazio sortzailea da laborategi hau. Tfarrah M.Yesslem eta Jara Calvo gidari izan ditu, eta hitzaren indarraz baliatuta erresistentziaren, erreparazioaren eta duintasunaren istorioak sortzeko lan egin dute.

Hurbilketa poetiko baten bidez, parte-hartzaileek beren bizipenen konplexutasunak aztertu dituzte, indarra eta erresilientzia azpimarratzen dituzten narrazioak josteko. Poemategi hau topagune horren —edo hura falta izan denaren— fruitua da, baina batez ere, erbestea, migrazioa eta egokitzapena bizi izan dutenen errealitateei buruzko go-

goeta sakonaren eta prozesu horiek gorputz eta bizitzetan uzten dituzten aztarna eta minei buruzko adierazpenaren emaitza da. Erreparaziorako eta eragindako minaren aitortzarako aukera bat da.

Abiapuntu bat da.

## SUTAN DAGOEN ETXEA ATZEAN UZTEA?

Uraren, eskubideen, lurraldearen eta guztien defendatzaileak, beste askok bezala, askotan beste lurralde batzuetara joan behar izaten dira nahitaez. Edozein pertsonak mugimendu askerako eskubidea badu azalpenik ere eman gabe, hemen desiratzen ez den ihes batez ari gara. Askotan, atzean lurralde propioa uztearekin batera, oinazea eta galera ekartzen direlako. Nola egin dezakete topo, orduan, bertan bizi diren pertsonekin eta bizipen horien erantzule direnekin, nahiz eta azken hauek erantzule diren ez jakin?

# NOR IRISTEN DA? MUNDUKO ZEIN LEKU GERATZEN ZAIGU, LURRA HESIZ BETE BADIGUTE?

*Solasaldi sozialaren ardatza, bestea leku estatiko batera iristea da, arrazoia edozein delarik ere. Baina kontakizunean haustura bat ematen da bere etxean dagoen hori entzuten dugunean, iritsi den horri kolonialismo eta indarkeriak kanporatu dituelako. Nahitaezko desplazamenduaren inguruko irakurketa da hau. "Lekua naiz".*

Banago.
Hemen.
Hemen ez da han.
Hemen niretzat.
Han niretzat.
Dena, dena niretzat.
Zu han zaude.
Han ez da hemen.
Hemen niretzat.
Han niretzat.
Dena, dena niretzat.
Hona zatoz.
Handik.
Handik ez dela hemen.
Hemen niretzat.
Han niretzat.
Dena, dena niretzat.

Olatu-kolpetik zatoz,
ilargi berria, ura,
igeri egiten duzu, igeri,
igeri, igeri edo ezereza
igeri edo ezereza,
heriotza edo ezereza,
jende-oldea, hegazkina,
patera, kamioi edo txalupan.
gelditzen ez den itsasaldia,
badatorrena, bazatoz, badatoz,
geldiezina den inbasioa,
handik hona,
geldiezina da ni hartu arte.
Dena delako ni.
dena da nirea, ziur egon zaitezke,
nire ohiturak, nire lengoaia, nire sehaska,
hemen denak sehaska altukoak
Ni, ni, ni,
Badago ezer zuretzat?

Badagoelako zerbait,
han niretzat,
Badakizu.
Hemen niretzat.
Hor niretzat.
Han niretzat.
Dena, den-dena, beti niretzat.

## Tfarrah

Itsasotik iritsi zineten urre bila
eta pertsonak eraman zenituzten,
fosfatoak, area ere,

Dena hartu ziguten,
eta geratu ginen,
galduak,
zure oihuak gerturatzen edo
urruntzen  diren ez dakizunean bezala,
edo jo-puntuan jartzen zaituztenean bezala,
zu erailtzeko, besterik gabe.

Inora nator
Hartu didaten etxetik
Itsasotik sartu ziren
Lurra minaz bete zuten
Eta ez ziguten non egoterik utzi

Zu, nire etxera iritsi eta nire lurrak
desjabetu zenituzten hori
“nondik zatoz” galdetzen didazu?

Nire hartutako etxetik nator,
Erre zenuen etxetik,
Nire amaren eskuetatik

Indarkeriak bultzatuta

Inora
(sirokoak ez zigun inoiz hainbeste kalterik egin)

Eta oraindik begietara begiratzen nauzu
zure inozentzia performatuarekin,
zure sineskortasun biolentoarekin
eta zure armadarekin egin zenuen bezala
hitz horiek artikulatzen dituzu

“Beldurra ematen didazu”

Bai, zaindu zaitez nitaz,
Nire hartutako etxetik nator,
Eta ez nago prest eraildua izateko
*Ezta memoria gabe geratzeko ere.*

## TOPAKETA

*Nola egingo dugu topo? Nahitaezko desplazamenduak bizi dituenak ez du atxikimendurako desirarik, askotan ezagutzen ez duen lurralde batera bueltatzeko beharra baizik. Bere sustraiak airean daude eta horiek, ongi-etorriak ez diren sentimenduetan daude, desplazatzeko eskubidea du, eta ez dio inori ezer zor. Zauri hori beregan eramango du.*

*"Nola maiteko diogu elkarri hainbesteko oinazea izanda?"*

## Jara

Ikusten zaitut.
Nola ez ikusi.
Txoriez inguratuta duzu hilea
Airean dauden txoriak,
Zure eskuak dira
Zure are-azal blaitua
Zure ahotsaren txingarrak entzuten ditut
Sutan dagoen etxe honen arrastoak dira
Zure ahots piztua,
Zure ahots kixkalia
Gure artean mailarik gabeko amildegi bat
Ni goian ikusten dut neure burua
Eta zuk behetik begiratzen nauzula uste dut
Gerturatzen, zure mapen artean eskalatzen.
Zer dira mapak ez badira
odol eta suz markatutako zaurien lurraldeak
Airean soilik izan gaitezke aske.

Ariadnarik gabeko labirinto honetara bultzatuak
Erretzen duen haize batez eta suminez jantziak
dena irensten duen biolentzia bategatik,
herrestatuak,
Apurrak ere mamurtzen dituenak
Baina sendo iristen zara, zutik, inoiz ez garaitua.
Lurralde okupatu bat dakartzazu zugan
Sutan dagoen zure etxearen oihartzuna.
Izar eta errauts usainaz inguraturik
Ez dijoana
Ez dena inoiz joango
Ikusten zaitut
Nola ez ikusi, Tfarrah.
Nola ez ikusi sutan dagoen emakumearen dirdira,
zure sustrai erauzien ibilera,
liburu honen orrietan sartzen den
moztutako lore bat bezala
ezer kontatzen ez duena,
mendeetako gezur bat besterik ez

bat bestearen atzean,
ofiziala, ukatzen dena, goraipatutakoa.
Baina ikusten zaitut Tfarrah.
Hemen, ukatutako historiaren azal bihurtua.
Ikusten zaitut, Tfarrah.
Zure presentzia barruan daroat,
eta laster, kontzientzia. Memoria, kontzientzia
frekuentzia txikiko soinu bat balitz bezala,
ez dena itzaltzen.
Ez dena inoiz itzaliko.
Zure hitza bat-batean nire gorputzean,
Nire eztarritik jaisten,
Barruraino iristen,
Dardara, topaketa honen arrakala.
Barnean eramaten zaitut jada.
Erretzen duen zure hitza, Tfarrah.
Sutan dagoen hitza.

## Tfarrah

Zerurik gabeko mundu batetan
Lurra amildegi da

Nola egin poesia hondamendi garaietan?
Nola begiratu hainbeste indarkeriak jota?

Erraietan dut mina
Hemen, zilborraren atzean
Hemen, behin nire amak
Elikatu ninduen leku berean

Gerraren alaba naiz
Leku guztietako errefuxiatu
Sustraiak airean ditut
Nire haziak haizean

Topaketaren beharra dut

Aterpe bat aurkitzeko,
Izan ahal naizen lur bat

Izan gaitezen, gure lurralde propio
Beldurretik erantziak,

Ez ezazu kartzela bat asmatu zure begiradan,
Ezagutu ezazu zure aurpegia (ez inoren lurraldea)
elkar ezagutu ahal izateko.

# HIZKUNTZA

*Ze hizkuntzetan ulertuko dugu elkar? Erabakia kolonialismoaren hizkuntzan solastea da, hura urratu eta erabiltzea elkarrekin topo egiteko.*

## Jara

Jaiotzeko ordua da.
Etxe egiten duen zure ohiala zoruan zabaldu eta gu jaiotzeko ordua.
Zure hitza sutan,
sute bat pizteko gai dena
dena irensten duena,
baina baita gogor helduta dagoen adaxka bat pizten duena ere,
dena argitu eta hasten duena.
Baina ze hizkuntzatan ulertuko diogu elkar,
marez edo hondarrez eginda gaude, pagoa ala argana?
Hauek izango dira
talka egin ondoren egingo ditugun lehen urratsak.
Hortaz, ezer existitu ez balitz bezala egingo dugu.
Nik Kolonia ez banu hitz egingo,
pribilegioaren dialekto.
Nik imperio ez banu hitz egingo,

Hizkuntza boterea ez balitz bezala,
laban edo muga,
truke-monetako lehen pertsona.
Beraz, irauli egingo dugu,
iraultzera goaz,
altxa diezaiogun
gona hizkuntzari.
Erromeroaren eta tximeleten hizkuntza,
argi eta zisneena,
esnegainarena
muxuaren hizkuntza, basoarena eta zilarrarena
edertasun eta urrezkoaren edertasuna.
Zuk eta biok batera erabakitzen dugun
hizkuntza honetan egingo dugu topo.

## Tfarrah

Badaude esaten ez dakizkidan gauzak,
baina nire ahoan sumatu ditzazket.
Eztarrian pilatzen zaizkit.
Batzutan, begiradan ere.

Besteen ahotsak entzutea gustuko dut.
Denak gertukoak, nahiz urrunetik iristen
zaizkidan.
Urrun? Batek ezin du alde egin
norberetik.

Iklam mah ingal kamal
esaten da Hassanian,

Beti geratzen dira maitasunaren apurrak.

Eta espaniola ez da espaniola edonon,

Herriek, Erreala  atera eta
Akademikoa bota egiten diogu

Hitz egiteko orduan egiten da hizkuntza,
gorputzen manifestua,
batera izan nahi duten gorputzak,
adierazteko desirek mugituak

Gure hizkuntz propioa sortu dezakegu,
Espainol hau ez da nirea, mah'nallah

Pozoia balitz bezala jaurtitzen dut
Nire hitza hartu ez dezan,
sentipena forma egiteko desira hartu ez dezan.

## DESIRAK

*Batez ere, itzultzea, arrazoi bategatik edo besteagatik nahitaez lekualdatzen denarentzat. Zure burura itzultzea, erresistentzian dagoen lurralde gisa.*

## Jara

Nik isiltasuna besterik ezin dut jarri mahai
gainean, Tfarrah,
Nire atzera pausua besterik ez,
Eskuak bizkarrean,
Banderak erauztea,
Armak kentzea.
Minik ez egitea, zauria ez irekitzea.
Urratu dezakedan gauza bakarra airean dauden
hutsuneak dira
Zuk hartu ditzazun
guk zurea konkistatu genuen bezala.
Batera bizi dugun espazio berri hau zaintzea.
datozenei
Ukatutako historia konta diezaket
beraiengan sutea geldi dadin.
Lurrez egindako bide izan naiteke
Suaren erdian.

Ibai, zingira, amildegi izan naiteke.
Ur izan naiteke.
Eskuak,
Hondamendia hartuko dituen eskuak,
Zuregana ez daitezen iritsi,
Inoiz.
Zuretzako eskatu dezaket,
ez niretzat.
Hango ezer niretzat
Den-dena zuretzat
Zuretzako,
Lurra, giltza, hitza.

## Tfarrah

“Nire gorputza, nire lurraldearen estentsioa da, nire bizitza zaintzea erresistentzia Anti koloniala da”

3 orduko loaldia,
Dolumina ez da amaitzen.
Hutsa betetzeko formak asmatzen ditut.
Baina hutsa argiaren antzekoa da,
dena hartzen du.

Urrun nago.
Nondik urrun,
Nire lurra ez badut inoiz,
hanka hauekin zapaldu?

Gerrak jarraitzen nau
Bake-prozesu betean jaio nintzen arren.

Aitzitik, babeslekuaren
bizitza-zigorrerako Prozedura,
Exiliora, okupaziora,
Nahitaezko migraziora,
Nire buruaren ezeztapenera,
Apatridiara.

Apatrida ni,
nire gorputza nire arbasoen
lurraldearen hedadura izanik?

Nire herriaren deshumanizazioa herri bezala,
Gure erresistentziaren sublimazioa
Koloniaren miseriaren estalki gisa,
Gure historiaren ukapena,
Haien biolentziatik haratago,

Hori da nire oinazea.

Horregatik, Incha Allah
Salbazio txuritik
Minutu bat ere ez
Bizitzea.

Incha allah zuen aurpegiak estalgabetu,
Eta izpiluan begiratu diezazuen,
Izurrigabekeria antzeman diezazuten
Eta orduan hondamendia sostengatu

Incha allah zuen gotorlekua
Babesteari utz diezazuten
Zuen legeetan
Zuen armetan

Zuen gorputzak opa dizkizuet
Inoren gorputzik hartu gabe.
Hortik, garenaren desberdintasun guztiak errespetatuz,

Etxe berbera partekatu ahal izango dugu

Ez badiozu zure txuritasunari traizioa egiten
*Ez nazazu maitia deitu.*

# SUTAN DAGOEN ETXEA ATZEAN UZTEA

*Sutan daukagun etxea ezagutu eta atzean utzi dugu, indarkeriatik aldendu gara, eta ez dugu ezer eraman. Ez ditugu errautsak zapaltzen, ezta etxea egon den lekua ere, ez gara leku horretan ibiltzen, eta beste edonora goaz, mugimenduan, elkarrekin.*

## Jara

Ez ezazu ezer eraman.
Dena utzi ezazu.
Hegoetan zamarik gabe arin joan gaitezen.
Inoiz mendeko,
Beti burujabe
Ez dugu errautsik zapalduko
Ezta etxea sutan egon den lekua ere ez.
Atzean utziko dugu,
Besterik gabe.
Zurea, hau, denona.
Iraganetik biluzik joan gaitezen,
Esandakoaz, gure topaketaren ondoren
lurrean erorita geratu denaz.
Ez dago goserik.
Ez dago berorik
Ez dago lo kuluxkarik.
Oinazetik haratago
Bake eta loraldian gaude gaur.

Ez gara zure beroaren pean hilko
ezta nire elurrak ehortziak ere.
Ez diogu batak besteari atzamartuko.
Haiek hautsi ditzatela haien buruak.
Oraindik existitzen den leku horretatik bueltatuko gara.
Han preziatuaren
Defendatzaile
eta hemen oraindik ez denaren defendatzaile.
Denbora gurekin dugu,
dena pendulu baten antzera bueltatzen den arren,
kaltea lehengoratzea.
Lagundu nazazu.
Goazen.
Bata bestearen alboan.
Lagunduko zaitut.

## Tfarrah

Area astintzen ari naiz
kizkurren artean
La3chah-lak utzitakoa.

Nire desiren zaporea
ezagutzen ari naiz.

Amildegien atzean
amaigabeak diren jauziak daude,
horietan antolatzen ari naiz.

Uad cheg-eko area gordeta daukadan
poltsaren bila joan
eta oinak bertan sartu ditut,

ibili ahal izango banu bezala,
zure bila joan nintzen,
zure gorputzaren baretasunaren
usaina jarraituz
zuregan nire isiltasunak bilatuz.

Behar nuen lekura joan naiz otoi egitera.
Nire pentsamenduarekin jolasten ari naiz,
Miran ditudan gauzak nire buruari oparituz.

Gorputzera bueltatzen ari naiz.
Mina aurkitzen dut orpoetan,
orbainak sabelean
eta ilusioak atzaparretan.
Ibili nahi ditudan bideak
Marrazten ari naiz.
Beste amets batzuetatik geratzen zaizkidan
adabakiak josten ari naiz.
Maitatzen ez dakidala onartzen.

Baina egiteko desira badudala.

Ez dakit nondik bueltatzen ari naizen
beti egon nahi izan nuen lekura bidean.
Jesarrita, baretuta, irribarre egiten
Eta nire erokeriei
harrera egiten.

Kaletik dantza egiten,
Gauetan sortzen ditudan
Isiltasunen isiltasunetan negar egiten,
Inork ez ditzan entzun
bihotz birrindu honen hotsak.

Hemen nago, nire burua
errailetatik maitatzen
Itzulera desiratu horretara
Itzultzen,
nire gorputzerantz.

# EGILEEN BIOGRAFIAK

## Tfarrah Mohamed Yesslem

Idazlea eta ikertzaile autonomoa. «Oinak aurretik jaio nintzen 1991ko abenduaren 15ean Tindufeko saharar errefuxiatuen kanpamenduetan. Bake-prozesu betean jaio nintzen, baina errefuxioa, erbestea, desplazamendu behartuak eta aberririk eza baino ez ditut ezagutu. Ama askoren alaba naiz. Ez dut sinesten afektuen eta jakintzen instituzionalizazioan; sukaldean izaten ditut beti, osasuntsu prestatzen, nire lagunekin. Galdera irekia naiz, definitzeke, izatearen etengabeko bilakaeran. Dialektika eta kontraesana puruak. Idazten dut nire memoria historikoaren eta nire herriaren memoria kolektiboaren erreparazio ariketa gisa.»

## Jara Calvo

Kazetaria eta Cabinet Comunicación (Iruña) kooperatibako kidea. Literatur arloan, "*A cero grados*" (2012) eta "*Los cuerpos delante*" (2022) poemategiak argitaratu ditu Baile del Sol argitaletxearekin. LAMALAMAR poesia eszeniko eta soinu-paisaien taldeko kidea da, Rove Rivera musikariarekin batera, eta elkarrekin "*Calor*" (2023) disko-liburua argitaratu dute, krisi klimatikoari buruzkoa. Bertan "*Berta*" kantua dago, Berta Cáceresen figurari eta ondareari eskainia. Bere sormen lana begirada kritiko batez eta komunitatearen garrantziaz bustita dago, baita bizitza duin eta bete baten nahiaz ere.

Se hicieron 60 copias de la versión
en Euskera.